

Etxebizitza-sektorearen bilakaera Sobietar Batasuneko hirietan: kommunalkatik bloke prefabrikatuetara

Oihan Diaz Franco
Historian graduatua

Artikulu honen helburua da Sobietar Batasunaren historian zehar hirietako etxebizitzek izandako bilakaera aztertzea. Landa-munduari aipamenen bat egin arren, *sovkhoz*, *kolkhoz* eta bestelako nekazaritza-bizitokiaren bilakaera ez da landu. Hein berean *datxa* edo sobietar zenbaitek hirietatik kanpo zituzten oporretarako etxebizitzak ere baztertu dira. Lana bigarren mailako iturriak erabiliz osatu da.

Testuinguru historikoa, bereziki ekonomikoa, landu ostean, lana bi epealditan banatuta dago: iraultzaren unetik Stalinen heriotzara artekoa, zeinean kommunalkak izan ziren etxebizitza mota nagusia, eta Khrustxovrek erreformak hasi zituenetik Sobietar Batasuna desegin artekoa, etxe prefabrikatu familiarak nagusitu ziren garaia. Eraikuntza-sektorearen antolaketa eta etxebizitza motak landu dira batez ere. Azkenik, lana etxebizitzaren esleipen moduari buruzko atal batekin amaitzen da.

GAKO-HITZAK: Sobietar Batasuna · Etxebizitza · Kommunalka · Khrustxovka.

Evolution of the housing sector in Soviet cities: from kommunalkas to prefabricated blocks.

This paper aims to study the evolution of urban housing throughout the history of the Soviet Union. Despite some allusion to the rural world, the development of *sovkhoz*, *kolkhoz*, and other agrarian residential forms have not been addressed. Similarly *dacha* or holiday homes held by some Soviets outside the cities have been excluded. The work has been done using secondary sources.

After a brief presentation of the historical context, especially the economic one, the work is divided into two periods: from the revolution to the death of Stalin, in which the *kommunalkas* were the main type of housing; and from the beginning of the reforms by Khrushchev to the dissolution of the Soviet Union, the period in which the prefabricated family houses prevailed. The organization of the construction sector and the types of housing have been mainly analyzed. Finally, the work ends with a section about the housing allocation process.

KEY WORDS: Soviet Union · Housing · Kommunalka · Khrushchevka.

1. Sarrera

Artikulu honek¹ aztergai du Sobietar Batasunean 1917ko iraultzaren unetik 1991ko desagitera arte hirietako etxebizitzak izan zuen bilakaera. Laburpenean esan bezala, landa-munduari aipamenen bat egin arren, *sovkhoz*, *kolkhoz* eta bestelako nekazaritza-bizitokiaren bilakaera ez da landu. Hein berean *datxa* edo sobietar zenbaitek hirietatik kanpo zituzten oporretarako etxebizitzak ere baztertu dira. Idazlanaren antolaketa honakoa da: lehenik testuinguru historikoa azaletik aztertzen da, bereziki historia ekonomikoan zentratuz; gero, bi ataletan banaturik (iraultzatik Stalinen heriotzara arteko garaia eta ordutik herrialdearen desagitera artekoa), etxebizitzaren bilakaera sakonki aztertzen da, bereziki etxebizitza motak eta eraikuntza-sektorearen antolaketa aztertuz. Bigarren atal horretan Khrustxoven garrantziaren eta haren garaiko testuinguru ekonomikoaren inguruko hausnarketa egin da. Azkenik, etxebizitzaren esleipen moduari buruzko atala dago, Gentile eta Sjöberg ikerlariek Letoniako Daugavpils hiriaren kasurako egindako ikerketako datuak erabiliz garatua (Gentile & Sjöberg, 2013).

Erabilitako iturriei dagokienez, ez da lehen mailako iturririk erabili. Horren ordez hainbat historialariren lanak eta datuak erabili dira, gehienak SESBen azken urteetan edo herrialdearen erorketaren ondoren idatzitakoak. Sobietar historia gai korapilatsua da, eta kontakizuna asko alda daiteke historialariaren arabera. Horretaz jakitun, informazioa iturri anitzetan kontrastatzen eta egokienak iruditutakoak zaizkigun historialarien lanak erabiltzen saiatu gara. Historiografiak asko landu ez duen gai bat den heinean, interesa eduki lezakeen edonori informazioa helarazteko modu egokia izan daiteke artikulu hau. Gainera, gai honek are esanahi eta balio handiagoa dauka etxebizitzaren arazoa eta alternatiba posibleak pil-pilean dauden une honetan.

2. Testuinguru historikoa

Sobietar Batasuneko etxebizitzaren bilakaerak herrialdearen historia ekonomikoa-rekin lotura zuzena dauka. Hiru epealdi nagusitan bereiz daiteke Sobietar Batasunaren historia ekonomikoa: lehenik, 1917ko Urriko Iraultzatik 1921era arte ezarri zen «Gerra Komunismoa», ondoren 1928ra arteko Politika Ekonomiko Berria (errusierazko siglak erabiliz NEP) eta, azkenik, ordutik herrialdea desegin zen arteko Bost Urteko Planen garaia. Argi dago, azken horretan unearen arabera politikak oso ezberdinak izan zirela, baina epealdi osoan zehar Bost Urteko Planak izan ziren planifikaziorako baliabide nagusia.

Lehen Mundu Gerraren aurretik, Errusiar Inperioa Europako gainerako estatuekin konparatuta herrialde atzeratua zen. Hala ere, XIX. mendearen bigarren erdialdetik estatuak bultzatuta industrializazioa hasi zen, nahiz eta oso apala izan. 1913an nekazaritza-sektoreak nazio-errentaren erdia baino gutxiago sortzen zuen arren, langileen % 80 baino gehiago barnebiltzen zituen (Palazuelos, 1990, 38-39. or.).

1. «Etxebizitza sektorearen bilakaera Sobietar Batasuneko hirietan: kommunalkatik bloke prefabrikatuetara» lanak 2023-2024 ikasturtean EHU'n Iban Zalduaren tutoretzapean egindako izen bereko GrAla du oinarri.

Urriko Iraultzaren osteko lehen hilabeteetan hainbat neurri hartu ziren eta, besteak beste, lurra zein bankuak nazionalizatu ziren. Abenduan, herrialdeko ekonomiaren kudeaketaz arduratuko zen Ekonomia Nazionalaren Kontseilu Gorena edo VSNKh sortu zuen gobernuak. Nazionalizazio ordenatua egin ordez, iraultza ostean hasi zen gerra zibila zela eta, sarri langileek zuzenean hartu zuten fabriken kontrola (lehen hilabeteetan egin ziren nazionalizazioen bi heren tokiko mailan erabakitakoak izan ziren). Hori horrela, 1918ko ekainean nazionalizazio-dekretu bat onartu eta Gerra Komunismoa izenarekin ezagutzen den epe ekonomikoa hasi zen. Garai horretan zentralizazioa oso handia izan zen eta industriak atzerakada handia jasan zuen: 1921ean altzairuaren ekoizpena 1913koaren % 4,6 izan zen, elektrizitatearena % 25, petrolioarena % 41 eta ikatzarena % 31. Industria-ekoizpen osoa 1913koaren herena inguru zen. Egoera kaskar horren arrazoitzat, besteak beste, aliatuen blokeoa, gerrara joandako langileek utzitako hutsuneak, uza eskasak, gehiegizko zentralizazioa eta nazionalizazio-prozesu kaotikoa aipa daitezke (Nove, 1992, 41-63. or.). Hala ere, urte horietan zehar SESBek eduki zuen arazo nagusia nekazaritza lortutako elikagaiekin hiriak eta frontea hornitzeko gaitasunik eza izan zen. Industriak nekazariarentzako kontsumo-ondasunak ekoizteko gaitasunik ez zuenez eta estatuak ordainsaritzat ematen zien paper-moneta berehala devaluatzen zenez, nekazariak ez zuten produktibitatea handitzeko pizgarririk. Gobernua uztak konfiskatzen hasi zenean, nekazariak gehiago produzitu ordez lur gutxiago landu eta merkatu beltzera jo zuten, gobernu boltxebikeari desafio eginez (Palazuelos, 1990, 51. or.). Nekazarien posizioak estatua arriskuan jarri izana garrantzitsua da NEPen ezartzea ulertzeko.

1920an Sobieten VIII. Kongresuan onartu zen planean hamarkadaren amaierarako erauzketa-industriaren ekoizpena bikoiztea eta industria eraldatzailearen % 80 haztea aurreikusten zen. Hortik hilabete gutxira baina, boltxebikeek gerra irabazi ostean, guztiz aldatu zen etorkizunerako pentsatuta zutena. 1921eko martxoko Alderdi Komunistaren X. Kongresuan, Leninek norabide-aldaketaren berri eman eta Politika Ekonomiko Berria aurkeztu zuen (Palazuelos, 1990, 52-53. or.).

NEPen garaian merkataritza eta nekazaritzan enpresa pribatuak onartu ziren eta 20 langile edo gutxiago zituzten enpresak lehengo jabeen itzuli edo jabe berrien esku utzi ziren (industria-kooperatiben esku batez ere). 1920ko hamarkadaren erdialdean industria-ekoizpenaren % 90 oraindik estatuaren jabetzako lantegietan egiten zen, baina horiek autonomia handia zuten (Hutchings, 1971, 75. or.; Palazuelos, 1990, 61-62. or.). 1921ean *Gosplan* planifikaziorako batzordea eratu zen eta VSNKh soilik industriaren arduradun bilakatu zen. Gerran abandonatu edo suntsitu ziren fabrikak berriro abian jartzeari esker, 1926an 1913ko industria ekoizpen-maila berreskuratu zen. Hala ere, urte horretarako oraindik industria garrantzitsu batzuk, altzairuarena kasu, ez ziren gerra aurreko mailetara itzuli. Orokorrean, urte horietako hazkundeak ez zen bereziki handia izan, ez behintzat gerora Stalinekin izan zen bezain handia (Nove, 1992, 89-94. or.). Gainera, NEPe hainbat arazo ere izan zituen, langabezia handia (8-9 milioi langabetu landa-ingurunean eta milioi batetik gora hirietan) adibidez (Gregory, 1994, 93-94. or.).

1924an Lenin hil ostean, Stalin bihurtu zen Sobietar Batasuneko buruzagia. Ofizialki 1929an onartu zen Lehen Bost Urteko Plana, nahiz eta 1928tik abian egon. Ordurako, atzerriarekiko independentzia lortzeko, sozialismoa herrialde garatuetan ere egin zitekeela erakusteko, industria-proletariotza handituz erregimena egonkortzeko eta industrializazioaren eraginez nekazaritza eta garraio-sektorea ere garatuko zirelakoan, industrializazioa sustatzea erabaki zen. Bost Urteko Plana onartu aurretik, baina, bi eztabaida garrantzitsu egon ziren. Batetik, planifikazio-ereduaren ingurukoa: alderdikide batzuek, Groman eta Bazarov Gosplaneko buruek kasu, planifikazio pasiboa ezartzea nahi zuten, hau da, aurreikuspenak egitera mugatu behar zen planifikazioa; beste batzuek, aldiz, horien artean Stalinek, ekonomiaren norabidearen inguruko erabaki zehatzak hartuko zituen planifikazio aktiboa nahiago zuten. Azkenean bigarren eredu nagusitu zen. Bigarren eztabaida prozesuaren abiaduraren ingurukoa izan zen. «Ezkerreko adarrak», Trotski barne, industrializazio azkarra eta nekazarien gaineko presio handia nahi zuten. «Eskuineko adarreko» kideek, aldiz, horrek herrialdean tentsio izugarria sortuko zuela uste zuten, ezkerrekoek 5 urtean egin nahi zutena 10-15 urtean egitea proposatzen zuten. Azkenean Stalinek, ezkerreko adarraren aurka egin arren, industrializazio oso bizkorren aldeko apustua egin zuen. 1931n oraindik eztabaida ez zen guztiz iraganeko kontua eta Stalinek honakoa esan zuen hartutako erabakia defendatzeko: «Herrialde aurreratuenezik 50 edo 100 urteko atzerapena daukagu. Tarte hori 10 urtean itxi behar dugu. Egin ezean gurekin amaituko dute» (Hutchings, 1971, 93-98. or.).

Garai horretako nekazaritzaren bilakaera aztertzea interes handikoa litzateke. Hala ere, lan honetarako erabilgarriagoa delakoan, industriaren bilakaeran zentratuko gara batez ere. Beraz, nekazaritzaren inguruko bi aipamen besterik ez: lehenik, Bost Urteko Planen ezartzearekin kolektibizazioak hasi ziren, nekazari indibidualen eremu txikiak elkartuz produktibitatea igoko zelakoan. 1927an estatuaren landetxe (*Sovkhoz*) eta landetxe kooperatiboek (*Kolkhoz*) orotara ereindako lurren % 1,7 bakarrik landu zuten arren, 1930erako lurren % 33,6 eta 1935erako % 94,1 kolektibizatuta zeuden (Nove, 1992, 101 & 173. or.). Bestetik, hirietako biztanleria, eta beraz haien elikagai-beharrak, hazten ari zen une batean nekazariei egindako gehiegizko presioak ondorio latzak izan zituen: gosete edo gaixotasunengatik 1931-1933 urteetan 7 milioi pertsona inguru hil ziren. (Nove, 1992, 180. or.).

Industriara itzuliz, sobietar ekonomiak atzerriarekin dependentziarik izan ez zezan, industria astuna garatzeko apustu argia egin zen, kontsumo-produktuen ekoizpenaren garapena aurreikusten zen arren, bigarren mailakoa bihurtu zelarik. Nahiz eta Lehen Bost Urteko Plana onartu zen unetik optimista izan, 1929 amaieran helburu berak 1933ko irailerako beharrean 1932ko abendurako betetzen saiatzea erabaki zen (Nove, 1992, 189-191. or.). 1. taulan ikus daitekeen gisa, planak iraun zuen urteetan industria-ekoizpena, eta bereziki industria astunarena, ikaragarri hazi ziren; ez, ordea, nekazaritza-ekoizpena.

**1. taula. Lehenengo Bost Urteko Planeko ekonomiaren balioak,
1926-1927ko mila milioi errublotan.**

	1927-1928ko datuak	1932-1933rako aurreikuspenak	1932ko datuak
Nazio-errenta	24,4	49,7	45,5
Industria-ekoizpena	18,3	43,2	43,3
<i>Bitarteko ondasunak</i>	<i>6,0</i>	<i>18,1</i>	<i>23,1</i>
<i>Kontsumo-ondasunak</i>	<i>12,3</i>	<i>25,1</i>	<i>20,2</i>
Nekazaritza-ekoizpena	13,1	25,8	16,6

Iturria: Nove, 1992, 194. or.

*Novek aipatzen du datuek, «inflazio estatistiko» deitzen duenaren erruz, ekoizpen errealean egondako hazkundea esajeratu dezaketela. Hala ere, ideia bat egiteko baliagarriak dira datuak.

Antolaketari dagokionez, 1932an VSNKh desegin eta haren ordez industriaz arduratuko ziren hainbat Herri Komisariotza sortu ziren (gerora ministerio izena jarri zitzaien). Komisariotza horien arteko oreka eta koordinazioa Gosplan erakundearen zeregina bihurtu zen (Nove, 1992, 217. or.).

Industria astunaren garrantziak berdin jarraitu zuen hurrengo urteetan ere. 3. Bost Urteko Planean (1938-1942 epealdirako pentsatua baina 1941eko ekainean gerragatik bertan behera utzi zutena) hazkundea esperotakoa baino askoz txikiagoa izan zen, berrarmatze-prozesuaren areagotzearen zein purgetan galdutako kapital humanoaren ondorioz batez ere (Nove, 1992; 259-260). Une horretarako ikus zitekeen SESBen amaiera arte bertako ekonomiak izango zuen arazo nagusietako bat: berrikuntza-gaitasun falta. Izan ere, purgen ondorioz, elite burokratikoak arriskurik ez hartzeko ohitura hartu zuen. Gainera, kanpotik zetozen albiste batzuei ezarritako zentsura zela eta, sarritan zientzialari zein ingeniarietara ez zuten mundu-mailan egondako asmakuntzen inguruko informazio nahikorik. Azkenik, plangintza zentrala eta berrikuntzarako pizgarriak uztartzeko ahaleginek ez zuten emaitza onik izan orokorrean (Davies, 2006, 81-82. or.).

Bigarren Mundu Gerraren eragina oso handia izan zen Sobietar Batasunean. 1940tik 1942ra nazio-errenta % 34 eta industria-ekoizpena % 23 jaitsi ziren (Hutchings, 1971, 132. or.; Nove, 1992, 277. or.). Besteak beste, 25 milioi pertsonaren etxebizitzak, 65.000 km burdinbide eta 31.850 industria-establezimendu suntsitu ziren gerran zehar (Duskin, 2001, 12. or.). Biztanleriarengan ere sekulako beharakada egon zen, eta 1945 amaieran 1941eko ekainean baino 27 milioi biztanle gutxiago zeuden lurralde konparagarrian (hildako soldaduez gain, zibilen heriotzak zein jaiotza-tasaren jaitsiera ere kontuan hartuta) (Nove, 1992, 291. or.).

Gerra osteko planen helburua batez ere kalteak konpontzea, berreraikitzea eta gerra aurreko egoera berrezartzea izan zen. 4. Bost Urteko Planaren garaian (1946-1950) berreskurapena oso azkarra izan zen. Estimazioen arabera, 1948rako 1940ko nazio-errenta gordina berreskuratu zen, eta Stalin hil zenerako, 5. plana tarteko, errenta 1940koaren % 150ekoa zen jadanik (Hanson, 2003, 25. or.)

Ekonomia suspertzeko berebiziko garrantzia izan zuten soldadu ohiek. Gerraren osteko 3 urteetan zehar 8,5 milioi pertsona desmobilizatu ziren Armada Gorritik. Gainera, horietako gehienek, aurretik zuten lan-esperientziari zein gerran zehar ikasitako gaitasun mekanikoei esker, jakintza edo trebezia handia beharrezkoa zen industriako lan-postuak hartu zituzten (Duskin, 2001, 17-19. or.).

Stalin 1953ko martxoaren 5ean hil zen, eta haren heriotzak alor guztietan, baita ekonomian ere, aldaketa handiak izan zituen ondorio. Ekonomian, industria astunak zuen garrantzia asko murriztu zen, nahiz eta diru-funtsen gehiengoa horretara bideratu zen ordutik aurrera ere. 1953tik Ministro Kontseiluko burua zen Malenkovek kontsumo-ondasunei garrantzi handiagoa eman zien; 1955erako, baina, lider berria Khrustxov izango zela gero eta argiago zegoen. Nahiz eta Khrustxov hasiera batean Stalinen eredu ekonomikoaren aldekoa zela zirudien, boterera heltzean Malenkovek proposatutakoaren bide beretik jarraitu zuen eta nekazaritza, eraikuntza eta industria kimikoa sendotu zituen batez ere (Hanson, 2003, 50-52. or.).

Antolaketan ere aldaketak egiten saiatu zen Khrustxov. 1957an ministerio gehienak desegin, defentsa-gaiekin zerikusia zutenak salbuespen, eta eskualde-mailako 105 Ekonomia Kontseilu (*sovnarkhoz*) sortu zituen horien orde. Horren ustezko helburua «departamentalismoa» ekiditea zen. Izan ere, sarritan ministerio bakoitzaren interesen defentsa interes orokorraren aurretik jartzen zen. Hala ere, 1964an, boterera heldu ostean Brezhnevrek egin zuen lehen aldaketetako bat erreforma hori bertan behera uztea izan zen (Hanson, 2003, 58-60. or.).

Brezhneven garaian ekonomian zein industria-ekoizpenean hazkundeak jarraitu zuen arren, planen helburuak apalagoak bihurtu ziren. Denbora aurrera joan hala, helburu horiek betetzea ere ezinezko bihurtu zen. Izan ere, Brezhneven agintaldian ekonomiak, teknologia-garapenak zein bizitza-mailen hobekuntzak geldialdia izan zuten (Nove, 1992, 384-388. or.).

1985ean Gorbaxov izendatu zuten Alderdi Komunistako buru. Geldialdiari eta krisiari merkatuaren papera handituz eta ekonomia azeleratuz erantzun nahi izan zion gobernu berriak. Horretarako *perestroika* erreforma ekonomikoa hasi zuten. Erreforma handi hori aurrera atera ahal izateko gobernu sendoa derrigorrezkoa zen. Baina aparatuko kideak ez zeuden horren alde, haien pribilegioak eta boterea murriztuko zituelakoan. Gorbaxovek, beraz, boterean zeuden pertsona ugari aldatzea erabaki zuen. Gainera, *glasnost* zein *demokratizatsiya* zela-eta erreforma egin ahal izateko beharrezkoa zen gobernu sendoa guztiz ahuldu zen (Nove, 1992, 394-419. or.). Horrela, 1991ko abenduaren 25ean Sobietar Batasuna behin betiko desegin zen.

Herrialdean egon zen industrializazio azkarrak, ohikoa den moduan, hiritartze-prozesu handia izan zuen ondorio. Horrek arazo asko sortu zituen eta Sobietar Batasuna denbora luzez ez zen hiritar berriei azpiegitura egokia bermatzeko gai izan. Biztanleria osoarekiko hiritarren proportzioaren bilakaera honakoa izan zen: 1920an % 16; 1929an % 18; 1939an % 33; 1959an % 48; 1979an % 62 (1929ko datuak estimazioak dira, besteak eroldari esker bildutakoak) (Clarke & Matko, 1983, 2-4. or.). Kontuan hartu behar da hiri-biztanleria definitzeko baldintzak ez zirela

berdinak izan SESBen historia guztian zehar. Gainera, baldintza horiek errepublikek ezartzen zituzten, beraz posible zen errepublika batzuetan hiritar kontsideratuko liratekeenak beste batzuetan landatartzat hartzea. Hala ere, ziurrenik, irizpide-aldaketek ez zuten eragin handiegirik izan, eta zenbait urtetan zehar egindako erroldak guztiz konparagarriak dira (Chambre, 1964, 10-11. or.). Gaur egungo estatu postsobietarreko mugak kontuan hartuta, eremu horretako hiritartzea % 17 baino txikiagoa zen 1910ean; 1991n Batasuna hautsi zenean, % 65,45ekoa. Hortaz, 80 urteko epean % 48 baino gehiago hazi zen hiritartzea. Konparatze aldera, Erresuma Batuko hiritartzea 1800etik 1880ra, industria-iraultzaren garaian beraz, % 26,82 handitu zen, % 28,7tik % 55,52ra (Ritchie *et al.*, 2023; Ritchie *et al.*, 2024).



3. Etxebizitza partekatuen garaia (1917-1953)

3.1. Kommunalka

Iraultza ostean, sobietar gobernu berria etxebizitzaren arazoa konpontzen saiatu zen. Horretarako, herrialdea gerran zegoela kontuan hartuta, eraikin berriak egitea baino areago jadanik eraikita zeuden etxebizitzak banaketa hobeia izan zuen jardun nagusia. 1917 amaierarako etxebizitza-eraikin handiak nazionalizatu edo udalekotu zituzten, eta tokiko sobietei etxebizitza hutsak eta aberatsen etxebizitzak (Leninen esanetan «logela kopurua bertan bizi diren pertsonen kopuruaren berdina ala hori baino handiago diren etxebizitzak») birbanatzeko legezko eskubidea onartu zitzaien (Andrusz, 1985, 13. or.).

Neurri horiek ez ziren guztiz eraginkorrak izan, besteak beste, nazionalizatutako etxebizitzak % 34 administraziora eta bestelako zeregin ez-erresidentzialak bideratu zelako (Andrusz, 1985, 14. or.). Hala ere, hiri nagusietan eragin handia izan zuten: Petrograden 1918-1919an 65.000 familia igaro ziren aldiri industrialetan bizitzetik zentro burgesa izandakoan bizitzera (Schlögell, 2021, 326. or.), eta Moskun, aldiz, 1918 eta 1924 artean 500.000 pertsona inguru izan ziren birkokatuak (Bater, 1980, 98. or.). Neurri horiei eta gerra-garaiko desurbanizazioari esker etxebizitzaren arazoa behin-behinean txikitu zen. Baina 1926tik aurrera eta, batez ere, 1928tik aurrera, industrializazioak sortutako urbanizazio-prozesuaren ondorioz egoera asko larritu zenean, eraiki ziren etxebizitza berriak ere etxebizitza partekatutakoak izatea erabaki zen. Horrela sortu ziren urte luzez sobietar gehienek ohiko etxe bihurtu ziren *kommunalkak*, hau da, apartamentu komunak. Stalinen garaian, 3-4 logelako etxebizitzak eraikitzea izan zen ohikoena, itxuraz familia nuklear batentzako izan zitezkeenak baina logela bakoitzean familia oso bat bizitzeko pentsatuak (Bater, 1980, 99-100. or.). 1934an gobernuak 4-5 pisuko blokeen alde egin zuenean ere, (Andrusz, 1985, 120. or.) apartamentu-eredu berarekin jarraitu zuten.

Esan bezala, lehenengo kommunalkak burgesen etxebizitzak banaketaren ondorioa izan ziren. Iraultza aurretik eraikitako luxuzko etxe burgesek 6 eta 12 logela artean izan ohi zituzten. Sobietar politiken ondorioz logela horietako bakoitzean familia bat ezarri zen, eta, beraz, antzinako burges familia baten etxea hamarnaka pertsonaren etxe bihurtu zen, 40 eta 60 pertsonarekin bizilekua partekatzea posible egin zuena (Schlögell, 2021, 315-316. or.).



1. irudia. Bi kommunalkaren oinplanoak.

Iturria: <https://kommunalka.colgate.edu>

Etxebizitza horietan logela bihurtu zen espazio pertsonal bakarra. Korridorea, sukaldea eta komuna partekatuak ziren. Sukaldean sua eta arraska komunak ziren, baina familia bakoitzak mahai bat eta apal bat izan ohi zuen. Gune komunetan egin beharreko lanak (garbiketa, zaborra atera...) txandaka egiten ziren bizilagunen artean. Horrek maiz eztabaidak sortzen zituen eta halakoak konpontzeko epaile-lana egiten zuten komite bereziak sortu ziren (Schlögel, 2021, 320-323 eta 330. or.).

Bizikidetza erraztu zein etxebizitzaren egoera ona mantentzeko helburuarekin hainbat lege egin ziren. Lehenengoak, 1920an onartu zenak, bizilekua zikin eduki, hondatu edo etxearen barne-ordena asaldatzen zuten pertsonentzako hilabeteko kartzela-zigorra edo hiru hilabeteko lan behartuak ezartzen zituen. Gerora beste hainbat legediren bidez arau sanitarioak ezarri eta gune partekatuetan egin ezin ziren ekintzak zehaztu ziren. Horretaz gain, beste hainbat neurri ere hartu ziren, gauerdetik zortziak arte isiltasunean egon beharra adibidez (Azarova, 2007, 181-185. or.).

Orokorrean nahiko baldintza eskasak zituzten garai horretako etxeek. Errusiako

SESFen 1940an oraindik hirietako etxebizitzaren % 20k soilik zuen berokuntza zentrala, % 43k estolda-sistema eta % 50ek ur-banaketarako hodiak. Gainera, landa zein hiriak kontuan hartuz, etxeen % 47 oraindik egurrezkoak ziren (nahiz eta 1926an % 72 zirela kontuan hartuta aurrerapen aski handia ikus daitekeen) (Kalyukin & Kohl, 2020, 1.776-1.777. or.).

Etxe mota horiek balio praktikoaz gain balio sinbolikoa ere bazuten. Izan ere, SESBen bizitzaren geratu ziren burges ohiak, zeinek eskubide zibil murriztuak zituzten, etxeetako logela txiki eta marjinalenetara igaro ziren; langileak, aldiz, logela onenetara (Schlögel, 2021, 327-328. or.).

Nahiz eta gure ikuspuntutik kommunalkak etxebizitza mota oso prekarioak izan daitezkeen, landa-mundutik kommunalketara bizitzera joan ziren milioika langilerentzako etxe partekatu horiek bizimodu berri eta modernoaren isla izan ziren (Schlögel, 2021, 334. or.). Gainera, garai horretan egon ziren beste hainbat proposamen aztertuz gero ulergarria da estatuak mota honetako apartamentuen alde egin izana. Aipagarriena agian, 1929an Leonid Sabsovitz planifikatzaileak egindako proposamena da. Kolektibizazio azkarraren eta kultura-aldaketa baten beharraren defendatzaile horrek honako etxebizitza mota proposatu zuen hiritartzeari aurre egiteko: 2.000-3.000 pertsona biziko ziren blokeak, non kide bakoitzak 5 m²-ko logela izango zuen, eta beste guztia denon artean partekatua izango zen. Umeen zaintza kolektibizatzearen alde zegoen, eta janari-denden eta sukaldeen ordez jantoki handiak ezarri nahi zituen (bi neurri horiek 1919ko Errusiako Alderdi Komunistaren VIII. kongresuan zehaztu ziren emakumeen emantzipaziorako eman beharreko pausoekin bat zetozen)(Andrusz, 1985, 114-116. or.). Hein berean, OSAk, Arkitekto Garaikideen Elkarteak, 1926an eredu erresidentzial berria sortu nahian antolatutako lehiaketara aurkeztu ziren zortzi proiektuetatik zazpi gune komunal ugari sortzea proposatu zuten (Movilla & Espejel, 2013, 29-32. or.). Beraz, argi dago horrelako proposamen ugari egon zirela SESBen lehen urteetan, 1930ean Alderdi Komunistako Komite Zentralak proposamen horiek «estremistak, oinarririk gabeak, erdifantastikoak eta beraz kaltegarriak» zirela esan zuen arte, hain zuzen ere (Ceccarelli, 1972, 187. or.). Hala ere, ikus daitekeenez, kommunalkak iraultzaren ostean proposatutako eredu utopikoetarantz hurbilketa bat dira hein batean.

Sobietar gizartearen eraikuntzan ere eragin izugarria izan zuten kommunalkak. Izan ere, nork bere etxean pribatutasunik ez edukitzeak bi ondorio izan zituen: batetik, etxean aurkitu ezin zen pribatutasunaren eta lasaitasunaren bila jendea leku publikoetara joaten hasi zen garai hartan; hala, parke, antzoki, kontserbatorio, museo eta bestelako erakunde kulturalak garrantzi handia hartu zuten SESBen. Bestetik, pribatutasunik ezak ondorio lazaragarriak izan zituen hainbat pertsonarentzat; auzokoek konfiantzazko jendearekin izandako elkarriketak entzutea erraza zen (are gehiago burgesen logela handienak eta egongelak izandakoetan, zeinak material merkeekin egindako hormak eraikiz hainbat gela bihurtu ohi zituzten), eta, bide horretatik, gobernuak biztanleak kontrolatzea eta jendearen arteko mesfidantza orokortuta zeuden une batean, auzokoen arteko salaketak ohiko bihurtu ziren. Telefonoak zituzten etxeetan ere, horiek pasilloan egoten zirenez, auzoko guztiek entzun zitzaizkien elkarriketak (Schlögel, 2021, 328-333. or.).

Kommunalkak Stalinen garaiko SESBeko ezaugarri nagusietako bat bihurtu ziren arren, ez zuten inoiz etxebizitza-arazoa konpondu. 1920ko hamarkadan sobietar gobernuak onartu zuen bizi-espazioak² gutxienez pertsonako 9 m²-koa izan behar zuela (Andrusz, 2021, 20. or.; Bater, 1980, 98. or.). Hala ere, neurri hori minimoa baino gehiago maximo erreferentziala izan zen, eta 1980ko hamarkadara arte ez zen lortu batez besteko bizi-espazioak azalera hori gainditzea. Nahiz eta Stalinen politiketan etxebizitzaren gaiak ez zuen inoiz industria astunaren garrantzia izan, hainbat urrats eman ziren arazoa konpontzeko asmoarekin: 1931n eraikin berriak sinpleagoak eta diseinu estandarrekoak izan zitezen eskatu zuen gobernuak, eta hamarkada beraren amaieran *Narkomstroj* Eraikuntza Komisariotza sortu zen (Andrusz, 1985, 149-150. or.). Hala ere, 1917-1927 garaian inbertsioen % 64 etxebizitzaren eraikuntzara bideratu zen arren, 1. Bost Urteko Planean % 15,4 eta 2.ean % 12,8 soilik bideratu ziren horretara (Azarova, 2007, 189. or.). Hori ez zen nahikoa izan urbanizazio-prozesu izugarriari aurre egiteko eta, 2. taulan ikus daitekeenez, *per capita* bizi-espazioak gora egin beharrean berdin iraun edo apur bat behera egin zuen gerra osteko datuekin alderatuta.

2. taula. Hiri-etxebizitzaren azalera osoa eta *per capita* bizi-espazioa SESBen, 1913-1955.

Urtea	Hiri-etxebizitzaren azalera osoa (milioi m ²)	<i>Per capita</i> bizi-espazioa (m ²)
1913	180	4,41
1923	—	6,45
1926	216	5,74
1930	—	5,59
1940	421	4,55
1950	513	4,9
1955	640	5,11

Iturriak: Andrusz, 1985, 22. or.; Ceccarelli, 1972, XIV. or.

*Andruszen lanean *per capita* azalera osoaren datuak agertzen dira. Bertatik hartutako datuak (1913, 1926, 1940, 1950 eta 1955) bider 0,7 eginda kalkulatu da *per capita* bizi-espazioa.

**Andruszen lanean datuak urte-amaierakoak direla zehazten da, Ceccarellirenean ez da zehazten.

Datuak hiriz hiri aztertuz gero aldeak dauden arren, Stalin hil zenean hiri nagusi guztietan pertsonako bizi-espazioa 1926an baino txikiagoa zen. Hala ere, bi kontu azpimarragarri daude pertsonako bizi-espazioaren banaketan: batetik, antzeko joera izan arren, *per capita* bizi-espazioa hiri zaharretan hiri berrietan baino handiagoa zen, jadanik aipatutako gerra aurreko etxe burgesen banaketak hori ahalbidetzen baitzuen; bestetik, 1920ko hamarkadan ezarri zen Politika Ekonomiko

2. *Dwelling area* Andruszen lanean, *living space* Baterrenean. Logelen eta egongelaren azalera. Andruszen lanean azaltzen da etheen azalera osoa x 0,7 eginda kalkulatzeko delat.

Berriaren ondorioz burges txiki eta ertainek, intelektualek, militarrek, funtzionarioek eta teknikariek eskulangileek baino baldintza hobeak zituzten, baita etxebizitzetan zegoen espazioaren banaketan ere. Hori izan zen «ezkerreko oposizioa» deitutakoak 1927an posizio ofizialari leporatutako hutsegite nagusietako bat, eta datu hauek eman zituen: eskulangileek 5 eta 6 m² artean zituzten; enplegatuek 6 eta 9 m² artean; artisauek 7,6 m²; profesional liberalek 10,9 m², eta lan egiten ez zuten pertsonak 7,1 m² (Ceccarelli, 1972, XV-XVII. or.).

Azkenik, aurrerago aztertuko dugun moduan, Khrustxoven garaitik aurrera beste etxebizitza-eredu bat nagusitu zen arren, ezin da pentsatu kommunalka egun batetik bestera desagertu zenik. Izan ere, Moskun 1960an oraindik biztanleen % 60 bizi zen kommunalketan, eta 1970ean % 40. Are esanguratsuagoa da Leningraden kasua, non 1989an, Sobietar Batasuna desagertzeaz zenean, oraindik ia biztanleen laurdenak bizi ziren kommunalketan (Schlögel, 2021, 316. or.). Herrialdearen desintegrazioaren ostean, kommunalketako azken biztanleak haien etxeetatik bota zituzten, kasu askotan biolentzia tarteko, eta kanpoaldeko eraikin berrietara bideratu zituzten. Zalantzarik gabe kommunalka sobietarren egunerokoaren parte izan zen, eta horrek, nahitaez, nostalgia sortu zien hainbat pertsonari hauetatik kanporatuak izan ondoren. Schlögel (2021) dioen bezala:

Sueñan con una época que quizá no fuera del todo feliz, pero sin duda era suya. Al desaparecer la *kommunalka*, desapareció un espacio social que sin duda constituía el núcleo de la forma de vida soviética, y que ahora, en su decadencia, se revela por fin como uno de los escenarios, quizá incluso el laboratorio del que surgió el ciudadano soviético, el estado de excepción prolongado que, para los que lo vivieron, no era más que la vida cotidiana (316. or.).

3.2. Barrakoiak

Sobietar etxebizitzaren lehenengo garaia ulertzeko, bada aipatzea ezinbestekoa den beste etxebizitza mota bat: barrakoiak. Sobietar Batasunaren urbanizazio azkarra ez zen soilik hiri zaharretan gauzatu, eta kasu askotan zerotik industriagune baten inguruan hiriak sortzeko erabakia hartu zen. Aipatu bezala, hiri berri horietan pertsona bakoitzak zuen bizi-espazioa hiri zaharretan baino murriztagoa zen. Industrializazio eta urbanizazio oso azkarraren ondorioz (Magnitogorsk adibidez, 1929an sortu zena, hamarkada batean 150.000 biztanleko hiria bihurtu zen), eraikuntza-prozesuak ez ziren langile guztiei etxebizitza eskaintzeko bezain azkar garatu. Horregatik, kasu askotan langileek ez zuten logela propioirik ere, eta barrakoiak ziren haien eguneroko bizitokia.

Barrakoiak egurrezkoak ziren, eta, berez behin-behinekoak ziren arren, 1930-1950 epealdian ohikoak izan ziren hiri berrietan (Schlögel, 2021, 354-356. or.). Hainbat kasutan, baita Khrustxoven garaiko etxebizitza-programa abian zegoenean ere, bizilekuen egoera guztiz prekarioaren ondorioz hiri horietako hainbat langilek beren etxebizitza propioak eraiki zituzten baimenik gabe, kasu batzuetan eraitsiak izango zirenak eta, beste batzuetan, elektrizitatea salbu, zerbitzurik eta baliabiderik gabeko «herrixkak» sortuko zituztenak (Bater, 1980, 108. or.).

Barrakoieng inguruan informazio gutxi dagoen arren, egoeraren gogortasuna irudikatzeko nahikoa da 1931n *Komsomolek*, Gazteriaren Batasun Komunistak, abian jarri zuen kanpaina aztertzea. Sobietar Batasunean barrakoiengan bizi zirenen egoera salatu zuten honako aldarria erabiliz: «Barrakoi bero baten aldeko borroka klasearen etsaiaren eta bere agenteen aurkako borroka da, zeinek gure ahulguneak aprobeztatzen dituzten eraikuntza sozialistaren kaltetan» (Schlögell, 2021, 358. or.).

Tamalez, kanpaina hura ez zen egoera hobetzeko nahikoa izan. Barrakoi kopurua edo horietan bizi ziren pertsonen kopurua zehazten zaila den arren, haien finantzaketara bideratutako diru kopurua esanguratsua da: 1926an hiriek etxebizitzara bideratutakoaren % 7 izan zen barrakoiak eraikitze, 1934an, aldiz, % 15. Datu horrek barrakoiengara bigarren epealdian lehenengoan baino jende gehiago bideratu zela adieraz lezake (Bost Urteko Planek sortutako industrializazioaren ondorioz ziurrenik). Bigarren Mundu Gerra ostean ere, eraikin asko kaltetuta edo suntsituta zeudenez, egoerak okerrera egiten jarraitu zuen. Kasu batzuetan auzo osoak eraiki ziren barrakoiekin epealdi horretan (Sosnovy, 1952, 301. or.).

4. Eredua berri baterantz

4.1. Antolaketa eta Stalin hil osteko aldaketak

Sobietar Batasuneko eraikuntza-sektorearen antolaketa bereziki nahasia zen. Hala ere, Khrushchev agintalditik aurrera etxebizitzaren gaiari dagokionez egondako aldaketak ulertzeko, ezinbestekoa da haren antolaketa eta funtzionamenduaren ezagutza orokorra izatea. Horregatik, ondorengo paragrafoetan sektore horren antolaketa ahalik eta modu sinpleenean azaltzen da.

Hasteko, Sobietar Batasunean hiru etxebizitza-jabe mota bereiz daitezke: estatua (tokiko sobieten jabetza zein «departamentu» mailakoa), etxe-kooperatibak eta indibiduoak. Iraultza-garaian, jadanik aipatu bezala, udalekotze handia egon zen. Lege zehatzik ez zegoenez, udal batzuetan egurrezko etxe txiki eta prekarioenak ere erakundeen eskuetara igaro ziren. 1921eko abuztuko lege batekin baina, hori atzera bota eta etxe txikiak haien jabeen itzuli zitzaizkien. 1923an herrialdeko etxebizitza guztien % 17 zen publikoa eta 1926an % 18; hirietan, aldiz, 1923rako jada biztanleen % 38 bizi zen jabetza publikoko etxeetan. Kontuan hartu behar da etxebizitza-eraikin publikoak neurritz handienak zirela. 1925ean jabetza publikoa tokiko sobiet eta «departamentu»en artean bereizi zen legeaz. Departamentuen jabetza ministerioen kontrolpean zeuden industria- eta garraio-enpresen, armadaren edo estatu-mailako museo, antzoki zein bestelako erakundeen esku zegoena zen. Horien helburua enpresa horietan lan egiten zuten langileak bertan bizitzea zen. 1954ra arte ministerioek etxebizitza-sektorean pisu izugarria zuten: 1924-28 epealdian etxebizitzara bideratutako inbertsio publikoen % 52 ministerioek egin zuten eta 1933-37 aldirian % 76 (Andrusz, 1985, 29-36. or.). Hainbat auzo eta hiri berrian ministerioen eragina hain zen handia, non haiek ziren hiri-zerbitzuak eskaintzen zituztenak tokiko gobernuen ordeiz (Morton, 1984, 74. or.).

Khrustxov, boterera heldu zenean, hori aldatzen saiatu zen. 1954an bertan, Moskun eraikitzeko eskusibitatea izango zuen *Glavmosstroj* erakundea sortu zen. Glendinningen arabera, sortu zen unean 21 ministerio eta departamenturen pean zeuden 84 eraikuntza-enpresa eta 110.000 langile barnebildu zituen (2021, 305. or.); Andruszen arabera, aldiz, 44 ministerio eta departamenturen pean zeuden 53 eraikuntza *trust*, 225 eraikuntzako kontratista orokor eta espezialista eta 600 ekoizpen-enpresa eta enpresa osagarri baino gehiago (1985, 161-162. or.). Hurrengo urteetan antzeko erakundeak sortu ziren Kiev, Leningrad, Baku eta beste hainbat hiri handitan (Andrusz, 1985, 162. or.).

1957an hiri handienetatik kanpo ere eraikuntzaren ardura ministerioei kendu eta sortu berriak ziren 100 eskualdeko kontseiluri eman zitzaien (Malaia, 2020, 7. or.; Bater, 1980, 45. or.). Hala ere, erreforma horrek huts egin zuen, eta 1965ean Aleksei Kosygin-en gobernua hein batean boterea berriz ministerioen esku uzten saiatu zen (Malaia, 2020, 8. or.). 1971ko Alderdi Komunistaren ebazpen baten arabera, hiri sobiet askok ez zuten etxebizitza-sektorearen gaineko ia kontrolik eta etxebizitza publikoen bi heren departamentu-jabetzakoak ziren. Ordutik aurrera, sobietek eraikitako etxebizitza bultzatu zen arren, ez zen egoera asko aldatu (Bater, 1980, 49. or.). SESB mailan, beraz, hiri handienak salbuespena izan ziren eta bertan soilik izan zuten tokiko sobietek indar handia. 3. taulan ikus daitekeen moduan 1990ean oraindik departamentu-mailakoa zen jabetza mota nagusia, herrialde osoa kontuan hartuz gero.

Kooperatibei dagokienez, bi garaitan egon ziren baimenduak Sobietar Batasunean: 1919tik 1937ra eta 1957tik aurrera. Bigarren epealdi horren hasieran ez zen kooperatiba haientzako laguntzarik aurreikusten, baina 1961 eta 1962ko bi erabakiren ostean eraikuntza-kooperatibei gastuen % 60 arteko maileguak ematea ahalbidetu zen Andruszen (1985, 38-42 & 83. or.) zein Glendinningen arabera (2021, 305. or.), eta % 40koak Baterren arabera (1980, 104. or.). Moskun eta Leningraden kooperatibek gehienez 60 kide izan zitzaizketen eta beste hirietan 48. Kooperatibek eraikitako apartamentuek baimenduta zegoen tamaina maximoa izan ohi zuten, eta etxebizitza publikoak baino erosoagoak ziren. Horietara sartzeko diru kopuru bat aurreratu behar zenez eta baimenak lortzeko burokrazian eraginak izateak prozesua asko bizkortzen zuenez, batez ere goi-mailako herritarrak egon ziren kooperatibetan (Bater, 1980, 104. or.).

Azkenik etxebizitza pribatuak daude. Hauek herrialdearen historia osoan legalak izan ziren. 1929ra arte estatuak sustatu zituen, eta eraikuntzen % 65,8 eraikitzaile pribatuek egin zituzten. Hamar urtez legalak izan arren laguntzarik jaso gabe egon ostean, Bigarren Mundu Gerra hastear zela gobernua berriz hasi zen eraikin pribatuak laguntzen, besteak beste kredituak eta materiala emanez (Sosnovy, 1952, 303. or.). Gerra osteko suntsiketak zirela eta, 1948tik are gehiago lagundu zitzaizkien eraikitzaile pribatuei, eta hirien mugen barruan zein kanpoan lurak doan uzten hasi ziren gehienez 5 logelako etxeak eraiki nahi zituzten langileei. 1963an sektore pribatua pixka bat mugatu eta 100.000 biztanletik gorako hirietan eraikin pribatu berriak altxatzea debekatu zen. Hala ere, oraindik garrantzi handia izan zuen eskualde ez hain urbanizatueta. 1958tik aurrera etxe pribatuen gehieneko tamaina

60 m² zen; hala ere salbuespenak zeuden, eta familia handiek edo langile eta talde sozial jakin batzuek etxe handiagoak izateko aukera legala zuten (Andrusz, 1985, 99-102. or.). Orokorrean etxebizitza pribatuak estatuarenak baino handiagoak ziren arren, kokapen eskasagoa eta zerbitzu gutxiago zituzten (Gentile & Sjöberg, 2013, 179. or.). Hirietako etxebizitza-stockean pribatuen ehunekoaren bilakaera honakoa izan zen: 1926an % 48,7; 1950ean % 29; 1963an % 31; 1980an % 20 eta 1990ean % 21,4. Landa-munduan, aldiz, jabetza mota hori zen nagusia (Kalyukin & Kohl, 2020, 1.775. or.; Alexeev *et al.*, 1991, 40. or.).

3. taula. Etxebizitza-stock guztiarekiko jabetza mota bakoitzaren ehunekoa, 1990.

Jabetza mota	Hiri-eremua	Landa-eremua
Estatuarena	72,3	24,0
<i>Hiri edo eskualdeak</i>	35,5	1,3
<i>Departamentu-mailakoa</i>	36,8	22,7
Kooperatibak	5,7	0,2
Pribatua	21,4	69,8
Beste	0,6	6,1

Iturria: Alexeev *et al.*, 1991, 40. or.

Etxebizitzen jabetza motak albo batera utzita, etxebizitzen diseinu- eta eraikuntza-prozesuan ere aldaketa handiak egin zituen Khrustxovek. Horien helburua produktibitatea handitu eta kostu ekonomikoak murriztea zen. Batetik, 1954-1958 epealdian, hiri handietan ehunka enpresa koordinatzen zituzten *Glavmosstroï* eta antzekoak sortu izanaren ondorioz, langileko produktibitatea % 81 handitu zen, eta eraikuntza-kostuak % 18,5 murriztu. Era horretako erakundeen azken helburua eraikuntza-prozesuan parte hartzen zuten enpresa guztiak DSK (*demosstroïelnie kombinaty*) izeneko etxebizitza-eraikuntza taldeetan koordinatzea zen. *Trust* erraldi haien helburua, DSK bakarrak etxebizitzen eraikuntza osoa kontrolatzean, enpresen arteko gaizki-ulertuak eta lanaren bikoizketa saihestu eta produktibitatea handitzea zen. DSK bakoitzaren eskumena bihurtu zen eraikuntzarako osagaien fabrikazioa, materialen garraioa, eraikitzea bera, barne-dekorazioa... Lehenengo DSK 1959an sortu zen eta 1980rako 188 zeuden SESBen. Hiriaren arabera koordinazio-talde horiek eragin handiagoa edo txikiagoa zuten: 1979an *Glavmosstroïk* eraikitako etxebizitzen % 52 soilik izan zen DSKen bidez, baina *Leningradstroïren* eta *Kievgorstroïren* kasuan % 81 eta % 79 hurrenez hurren (Andrusz, 1985, 162-163. or.). DSK horietan garrantzi handia zuten elementu prefabrikatuak produzitzen zituzten lantegiek, bereziki hormigoizko panelekin egindako eraikinak nagusitu ziren unetik aurrera. 1954an SESBeko Ministro Kontseiluak hormigoizko eraikuntza-elementuak ekoizteko 600 fabrika sortzeko baimena eman zuen (Meuser & Zadorin, 2015, 103. or.). 1990ean oraindik 650 fabrikatik gora zeuden (Glendinning, 2021, 338. or.).

Bestetik, diseinu estandarrak indartzea izan zen Khrustxoven lorpenetako bat. Diseinu estandarrak behin eta berriz erabiltzeko sortutako arkitektura-diseinuak

dira. Diseinuen estandarizazioa derrigorrezko urratsa zen hurrengo hamarkadetan garatu zen prefabrikazioan oinarritutako eraikuntza-industriak aurrera egin zezan. Mota horretako diseinuak lehenago ere bazeuden SESBen: 1940ko hamarkadan langileentzako egurrezko barrakoi gehienak horrela eraikitzen ziren, eta Moskuko eta Leningradeko hainbat bestelako eraikinetan ere eskailerak eta horma prefabrikatuak (eta beraz diseinu estandarrekoak) jarri ziren (Meuser & Zadorin, 2015, 46-47. or.). 1954an, Khrustxoven erreformek eragina izan aurretik, Moskuko eraikinen % 18 inguru diseinu estandarren bidez eraiki zen (Andrusz, 1985, 151. or.). Urte horretatik aurrera horien garrantzia asko handitu zen eta 1955ean SESBen eraikitako hiri-etxebizitzaren % 52 eta 1970ean eraikitakoen % 93,5 izan ziren diseinu estandarrekoak (Andrusz, 1985, 160. or.). 1954an ordura arte sarituak izan ziren hainbat arkitektoari eraikinen kanpoaldeko itxuran arreta handiegia jartzea leporatu eta sariak kendu zitzaizkien; gainera Moskuko Arkitektura Institutua zein beste hainbat eskola kritikatuak izan ziren alde artistikoan arreta handiegia eta ekonomikoan txikiegia jartzeagatik. Hala ere, oraindik sistema ez zen guztiz eraginkorra: 1955ean 40 diseinu-erakunde baino gehiago zeuden *Gosstroiren* (Eraikuntzarako Estatu Batzordea) edo beste ministerioen menpe, eta, beraz, diseinu estandar gehiegi zeuden elementu prefabrikatuen lantegiek modu egokian jarduteko. 1963an, dekretu baten bidez arazoa konpontzeko, diseinuen egiletza zentralizatu eta *Gosgrazhdanstroi* (Eraikuntza Zibilerako eta Arkitekturarako Estatu Batzordea) sortu zen *Gosstroiren* barruan, zeinak etxebizitzaren diseinu estandarrak sortzeko ardura izango baitzuen. *Gosgrazhdanstroiren* barruan hainbat diseinu-institutu zientifiko eta eskualdeko zeuden integratuta (Andrusz, 1985, 150-152. or.). 1970eko hamarkadan herrialdea 26 planifikazio- eta eraikuntza-barrutitan banatu zen. Barrutien helburua horietako bakoitzean diseinu-serie propioak edukitzea zen arren, egiatan klima antzeko eremuetan serie berak erabili ziren (Meuser & Zadorin, 2015, 19. or.).

Aipatu beharreko azken elementua SNiP da (*Stroitelnye normy i pravila*, Eraikuntzarako arau eta erregulazioak), eraikinak arautzen zituen legedia. Hori *Gosstroik* egiten zuen eta bertan zehazten zen, besteak beste, etxeen nolakotasuna eta gutxienez zein gehienez izan behar zuten tamaina. Lehenengo SNiP 1954ko azaroaren 16an onartu eta 1955eko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean. Herrialdearen desegitera arte lau aldiz izan zen berrikusia legedia: 1958an, 1964an, 1971n eta azken aldiz 1986an (Meuser & Zadorin, 2015, 21-23. or.).

4.2. Etxe prefabrikatuak: Khrustxovkak eta Brezhnevkek

Khrustxovek bazekien etxebizitza zela herrialdeak zuen arazo nagusietakoa, eta, beraz, 1957ko dekretu batean hamar urtean arazoa deuseztatzeko konpromisoa hartu zuen. 1961ean argitaratutako Alderdi Komunistaren programaren arabera 1971rako etxebizitza faltarik ez zen egongo, eta 1980rako familia bakoitzak etxe propioa izango zuen (Andrusz, 1985, 1. or.). Horrela, etxebizitza berriak «familia bat, pisu bat» printzipioa aintzat hartuta eraiki ziren, eta ordura arteko kommunalkak iraganeko etxebizitza bilakatu ziren (Glendinning, 2021, 299. or.). Une horretatik 1980ko hamarkadara arte, Sobietar Batasunean urtero batez beste 2.000.000 etxebizitzatik gora eraiki ziren (Morton, 1984, 72. or.).

Eraikuntzan erabilitako metodoei dagokienez, bost izan ziren: adreilua, adreiluzko zein hormigoizko bloke handiak, panelak (sabairainoko altura zuten eta eraikinen zamari eusten zioten hormigoizko panelak), panelak gehituz osatzen zen hormigoizko marko-sistema, eta «unitate espazialena» (hiru dimentsioko espazio prefabrikatuak) (Meuser & Zadorin, 2015, 49. or.). Hala ere, argi eta garbi nagusitu zena, eta orokorrean jendeak sobietar etxebizitzek duen irudiaren erantzulea, hormigoizko panelen metodoa izan zen. 1959an etxebizitza publiko zein kooperatiboen % 1,5 bakarrik eraiki zen material horrekin, 1970ean % 37, eta 1980an % 60 (Andrusz, 1985, 160. or.). Gobernuak eraikuntza modu horren alde egin zuen, arrazoi ekonomikoak zirela eta: 1954an Komite Zentralaren eta Ministro Kontseiluaren dekretu batek aukera hori zegoen eraikinetan hormigoia erabiltzeko eskatu zuen, haren bidez urria zen metala aurrezten omen zelako. 1973an Gosplan haratago joan zen eta Errepubliketako ministerioei hormigoizko panel-industriaren gaitasun osoa martxan egon arte adreiluzko etxebizitzak debekatzeko eskatu zien (Malaia, 2020, 2-3 & 10. or.). Panel bidezko eraikuntza-sistemak eraikuntza tradizionalarekin konparatuta honako onurak zituen: eskulanean % 35-40 artean aurrezten zen, 1 m² eraikitzearen kostua % 10 apalagoa zen, eta 5-6 pisuko bloke bat eraikitzeak denbora bizpahiru urtetik hiruzpalau hilabetera murrizten zen (Andrusz, 1985, 160-161. or.). Panelekin eraikitako etxebizitzaren arazo nagusia da soinu- eta tenperatura-isolamendua oso eskasa zutela (Malaia, 2020, 10. or.)

Eraikuntza-metodoekin amaitzeko, garrantzi txikiagoa izan zuen arren, aipagarria da unitate espazialen metodoa. SESBeko arkitektoak ez ziren mundu-mailan salbuespena izan unitate espazialen erabileran. Izan ere, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan metodo horrekin eraikitako Moshe Safdie-ren Montrealeko eraikina edo Kisho Kurosawa-ren Tokiokoa mundu-mailan ezagunak bihurtu ziren. Garraioa errazteko, unitate horiek gehienez itsasontzietan mugitu ohi diren edukiontzien tamaina zuten. 5 paretako (4 pareta + sabaia/goikoaren lurra) unitateak erabiltzen zituen lehenengo diseinu esperimentala 1959an egin zen. Hala ere, *Gosstroik* lehen aldiz 1968an baimendu zuen horrelako serie bat masa-produkzioan sartzea. *Stroitel'naya Gazeta* sobietar arkitektura-aldizkariaren arabera, metodo hori panel-metodo merkeena baino % 10-15 merkeagoa zen, eta 5 solairuko eraikinak 10-12 egunean altxatzea ahalbidetzen zuen (Meuser & Zadorin, 2015, 53-62. or.). Hala ere, produkzio-sistema paneletara bideratuta zegoenez, unitate espazialak ez ziren inoiz nagusitu.

Etxebizitzaren diseinu estandar bakoitza «serie» izenarekin ezagutzen da eta SNIIP bakoitzaren garaian egindako serieen multzoa «belaunaldi» gisa. Khrustxoven hasierako helburua dozena-erdi serie egitea zen, baina SESBen azken urteetarako hainbeste serie diseinatu ziren, ezen denak katalogatzea ere zaila den (Meuser & Zadorin, 2015, 29. or.). Serieen diseinua *Gosgrazhdanstroiren* esku egon zenean, horren barruan antolatuta zeuden tokiko zein eskualde-mailako diseinu-institutuak bereziki garrantzitsuak izan ziren klimari eta inguruneari egokitutako diseinuak egiteko orduan. Eraikinak hegoaldeko desertuetan, iparraldeko permafrost-dun guneetan edo lurrikara ugari guneetan eraikitzeak diseinatu zituzten. Kasu batzuetan arauak ere helburu horretarako moldatu zituzten: iparraldeko eskualdeetan, adibidez, 1960ko hamarkadatik aurrera etxeak % 10 handiagoak izan zitezkeen biztanleek, hotz

handiagatik, denbora asko pasa behar zutelako bertan; hegoaldean, aldiz, leihoei itzala emateko gehigarriak eta atarietan logiak eta galeriak gehitu ziren freskotasuna hobeto mantentzeko. Klima espezifikotara egokitutako eraikinak izateak diseinuak atzerriko herrialdeetara esportatzea ahalbidetu zuen, 1-464 seriea (ikus 2. irudia) Kubara eta Txilera adibidez (Meuser & Zadorin, 2015, 34-36. or.).



2. irudia. 1-464 serieko eraikina.

Iturria: Wikimedia Commons.

Bloke bakoitzeko solairu kopurua ere arrazoi ekonomikoek baldintzatzen zuten. Khrustxoven garaian 5 pisuko eraikinak izan ziren nagusi (herri-mailan *khrustxovka* deituak); izan ere, legediaren arabera 6. pisutik aurrera igogailua jarri behar zen, eta hori jarri gabe kostua txikiagoa zen. 5 pisuko eraikinen kostua izan zen bestelako blokeen eraginkortasun ekonomikoa neurtzeko erabili zen neurria ere: proportzioan 5 pisuko eraikina baino merkeagoak zirenak onargarriak ziren, besteak ez (Meuser & Zadorin, 2015, 65. or.). Brezhneven garaitik aurrera, aldiz, 9 eta 16 pisuko eraikinak eraiki ziren gehienbat (aurreko ereduari jarraikiz, *brezhnevka* gisa ezagutzen ziren) (Glendinning, 2021, 323. or.). 1980ko hamarkadan haratago joan eta hiri handien kasuan 12, 16 zein 25 pisuko eraikinak izan ziren nagusi (Morton, 1984, 72. or.). Blokeen itxura oso zurruna zen hasiera batean, 1958ko SNIpek etxebizitza-bloke osoa arautzen zuelako. Hurrengo SNIpekin gauzak aldatu eta araututako estandarra errespetatuz forma ugariako blokeak egitea ahalbidetu zen (Glendinning, 2021, 312-313. or.).

Apartamentu berrien tamaina ere SNIp araudiek baldintzatu zuten. Lehenengo SNIpen garaiko pisuak oso txikiak ziren: logela bakarreko etxe batek 8 m² eta 16 m² arteko azalera izan zezakeen eta lau logelako etxe batek gehienez ere 40 m²-koa. 1954an sukaldeek gutxienez 7 m² izan behar zituztela arautu zen arren, hiru urte geroago, masa-produkziorako serieak diseinatzen hasi zirenean, 4,5 m²-ra murriztu zuten minimoa. Hurrengo araudietan pixkanaka azalera handiagoak baimentzen hasi ziren: 1964an argitaratutako SNIpen logela bateko etxeen gehienezko azalera 36 m²-ra handitu zuten eta lau logelakoena 63 m²-ra. 1971ko SNIpen sukaldeen azalerak, berriz, 7 m²-koa izan behar zuela zehaztu zen. *Perestroikaren* garaian egin

zen laugarren eta azken SNIpen berrikusketan logela bakarreko apartamentuen gehienezko azalerak 36 m²-koa izaten jarraitzen zuen, eta lau logelakoenak 77 m²-koa (bi kasuetan 1958ko SNIpen zehazten zenaren bikoitza gutxi gorabehera, beraz) (Meuser & Zadorin, 2015, 21-23. or.).

Etxebizitza prefabrikatuak nagusitu zirenetik, eraikin berrien monotonia kritikatu zuten biztanle ugariak. 1962an, kritika horiei erantzunez, Khrustxovek Komite Zentralaren aurrean «ñabardura arkitektoniko eta artistikoak posiblea eta arrazionala denaren mugen barruan» sortu behar zirela aipatu zuen. Eraikinen alde artistiko hau Tokiko Diseinu Institutu eta DSKen esku zegoen. Ikuspuntu artistikora aurrekontuaren % 2 bideratu zitekeen gehienez, eta soilik balkoiak, eraikinen sarrerak eta mosaikoak molda zitezkeen. Diseinu estandarrek erabiliz artea eta arkitektura berezia egiteko aukeraren adibide onena Taxkent hiria eta Zhasky anaiak dira. Taxkenten alde zaharra 1966ko lurrikararen ostean ia osorik berreraiki behar izan zen. Berreraikuntzan Zharsky anaiak parte hartu zuten, zeinek aurrekontuaren % 2 baliatuta 200 muraletik gora egin zituzten, sobietar modernismoa eta Uzbekistaneko ohitura eta sinbolo tradizionalak uztartuz. Taxkent azpimarratu arren, horma-mosaiko horiek herrialde osoan zehar egin ziren hormigoizko panelekin eraikitako diseinu estandarrek zekarten ustezko monotoniari aurre egiteko (Meuser & Zadorin, 2015, 73-95. or.).

Etxe prefabrikatuen nagusitzearekin zeharo aldatu zen SESBeko herriarren egoera. 1981ean historian lehen aldiz batez beste 9 m²-ko bizi-espazioa gainditu zen (oroitu azalera hori 1920ko hamarkadatik minimo gisa ezarrita zegoela). Hala ere, errepublikaren arabera ezberdintasun handiak zeuden: Uzbekistanen batez besteko bizi-espazioa urte horretan 6,65 m² zen, eta Estonian, aldiz, 11,2 m². 1956 eta 1980 artean batez beste urtero 8.200.000 pertsonak izan zuten etxebizitza berri baterako sarbidea, eta 2.600.000 pertsona etxe modernizatueta joan ziren edo haien etxebizitzaren espazioa handitu zuten (Andrusz, 1985, 177-178 eta 286-287. or.). 1980rako hiri-biztanleriaren % 80 baino gehiago apartamentu familiarretan bizi zen (Morton, 1984, 75. or.). 1960tik aurrera hainbat arkitekto bizimodu sozialista berriko etxebizitzek pertsona eta logela kopuru bera izan behar zutela esaten hasi ziren. 1980ko hamarkadarako autoritateek azken helburutzat, pertsona bakoitzak logela propioa izateaz gain egongela ere izatea proposatu zuten (Andrusz, 1985, 144 & 179. or.). Beraz, biztanle bakoitzak Leninen «aberatsen etxea» baino are etxe handiagoak izateko helburua ezarri zuten garai horretan. Tamalez, bloke sozialistaren erorketaren ondorioz helburu hori ez zen bete.

Eragin sozialari dagokionez, sukalde, komun eta pasillo komunak familia nuklearrentzako etxebizitzekin ordezkatzeko gizartean indibidualismoaren gorakada ekar zezakeela pentsatu zen. Hori saihesteko auzoetako boluntario-brigadak eta blokeetako komunitate-taldeak sortu ziren (nahiz eta sarri blokeetan komunitatearentzako gunerik eta zerbitzurik ez egon) (Glendinning, 2021, 305. or.).

Azkenik, bada etxe prefabrikatuez gain aipamen bat merezi duen beste etxebizitza mota bat: erresidentziak. Herrialdearen lehen unetik azkenera arte hirietan horrelako bizilekuak egon ziren. Literadun logelak izan ohi zituzten eta Omskeko neskentzako erresidentzia batean, adibide bat jartzearren, 12-20 pertsonak egiten zuten lo logela

bakoitzean. Erresidentziak sarri kultura alternatiboaren gune eta leku aski «askeak» ziren. Gorbaxov Moskuko Unibertsitateko Úlitsa Stromynka erresidentzian bizi izan zen garai batean. Hala ere, gazteen bizitoki izateaz gain, bikoterik aurkitu ezeari bizitza guztirako etxebizitza bihurtu zitezkeen (Schlögel, 2021, 350-353. or.). 1980an, hirietako biztanleen % 80 etxebizitza familiarretan bizi zenean, oraindik % 5, ezkongabeak gehienak, erresidentzia edo aurreko atalean aipatutako barrakoietan bizi ziren (Morton, 1984, 75. or.).

4.3. Khrustxov ala une historikoa?

Argi dago Khrustxoven agintalditik aurrera etxebizitza-eredua guztiz aldatu zela Sobietar Batasunean. Baina Khrustxov izan zen aldaketa horren eragile nagusia? Ala bilakaera naturala izan zen?

Hasteko, Khrustxovek eraikuntza-industriarekiko kezka zuela argi dago. 1953an Alderdi Komunistako idazkari nagusi bihurtu aurretik, Moskuko komiteko buru izan zen 1934-1938 eta 1949-1953 aldietan. Postu horretan eraikuntza industrializatu eta hierarkizatzearen alde egin zuen. 1930eko hamarkadan etxeen eraikuntza-enpresa txikiak abolitu eta ministerioen menpe egongo ziren enpresa handien alde egin zuen, horrela koordinazioa eta etxebizitzaren kalitatea hobetuko zirelakoan. Horretaz gain, eraikuntza-materialen produkzio industrialaren alde ere egin zuen (Malaia, 2020, 3-5. or.).

Hala ere, familia bakoitzak etxe propioa izan beharreko ideia zein sektorearen estandarizazio eta industrializazioarena aspalditik zeuden presente politika sobietarrean. Alderdi Komunistaren Komite Zentralaren 1931ko ekaineko ebazpen batek helburutzat ezartzen zuen «akastunak eta desegokiak diren eraikuntza-materialen ordeztu, material berriak eraginkortasunez eta era produktiboan erabiltzea, eta etxebizitzak eraikitze teknika sinplifikatuak eta estandarizatuak martxan jartzea» (Ceccarelli, 1972, 206. or.). Lehenago ere, 1920an, gobernuak hitz eman zuen etorkizunean familia bakoitzak gutxienez bi logela, ataria, sukaldea, komuna eta trastelekua zein sotoa zituen 50 m² edo gehiagoko etxea izango zuela (Ceccarelli, 1972, XVI. or.). 1932an ere, Moskuko Komite Exekutiboak apartamentu bakoitzean familia batek bizi behar zuela esan zuen (Andrusz, 1985, 121. or.). 1950ean gobernuak etxebizitzak eraikitzearen kostua % 25 murriztu behar zela adierazi zuen (Andrusz, 1985, 159. or.) eta, azkenik, 1952an, Stalin hil aurreko urtean beraz, eraikin prefabrikatuak oinarri zituen 10 urteko plana onartu zen Moskun (nahiz eta kasu horretan Khrustxovek, Komite Exekutiboaren burua zen heinean, eragin zuzena eduki ahal izan zuen) (Glendinning, 2021, 304. or.).

Beraz, ikus daiteke komunalken ordeztu beste eredu bat gauzatzeko helburua lehenagotik ere existitzen zela. Baina hori garatzeko hainbat oztopo izan ziren. Batetik, eta argiena, Bigarren Mundu Gerra izan zen. Sobietar Batasuna gerran egon zen lau urtez, eta garai horretan gai sozialak guztiz bigarren planoan egon ziren. Bestetik, gaitasun ekonomikorik eza ere aipa genezake. Lehenengo Bost Urteko Planean adierazi zen bezala: «Gure herrialdea oinarrizko ekipamendu sendoa eraikitze aurrerarik gabeko esperientzia batean dago, [...] garrantzi historikoa duen helburu bat lortu ahal izateko berehalako beharrei uko eginez» (Ceccarelli, 1972, XVIII. or.).

Hau da, industrializazioak ekarri zuen garapen ekonomikoa lortu arte «berehalako beharrak», horien artean etxebizitza, bigarren mailakotzat jo ziren. Stalinen garaian egondako hazkunde ekonomikorik gabe ziurrenik ezingo zen 1950eko hamarkadatik aurrera egin zen eraikuntza-programa egin.

1. grafikoan ikus daiteke Khrustxovekin jo zutela goia etxebizitzara bideratutako inbertsioek. Hala ere, gerra aurretik zein ostean jadanik inbertsioen ehunekoak goranzko joera zuela ere azpimarratu behar da. Gainera, eta hazkunde ekonomikoarekin lotuta, esanguratsua da inbertsioen ehunekoa baino askoz gehiago handitu zela epeze epe eraikitako azalera. Bigarren Bost Urteko Planeko datuak (1933-1937) eta Seigarrenekoak (1956-60) konparatuz gero, inbertsioen ehunekoa % 12,8tik % 23,5era igo zen, hau da, ia bikoitza (kopuru absolutua, noski, askoz gehiago hazi zen). Urtero eraikitako azalera, aldiz, 13.460.000 m²-tik 94.820.000 m²-ra, zazpi aldiz handitu zen. Hori ez da Khrustxovek antolaketan egindako aldaketen ondorioa soilik, eta ekonomia-hazkunde izugarria egon izanaren erakusle ere bada: 1933tik 1956ra, tartean gerra gertatu arren, nazio-errenta prezio konstanteetan % 827,9 handitu zen (Clarke & Matko, 1983, 7. or.).



1. grafikoa. Etxebizitzan egindako kapital-inbertsioa eta eraikitako azalera osoa, 1929-1980.

Iturriak: Andrusz, 1985, 20. or.; Clarke & Matko, 1983, 31-33. or.

*Andruszen datuetan laugarren epealdiak 1946ko urtarila ere barne hartzen du, Clarke eta Matkok hilabete hori hurrengo epealdiaren barruan sartu zuten.

Beraz, Khrustxovek etxebizitzaren gaia lehen mailako arazotzat jartzeko orduan paper garrantzitsua izan zuen arren, kontuan eduki behar dugu une historiko hori baino lehen horrelako erreforma bat aurrera ateratzeko baldintzarik ez zegoela. Arrazoi politiko eta ideologikoak garrantzitsuak diren arren, milioika etxebizitzaren eraikitzea aztertzeke ezinbestekoa da uneko egoera ekonomikoa ere kontuan hartzea.

5. Etxebizitzaren esleipena

Herritarren eguneroko bizitzan, etxebizitza motak bezainbesteko garrantzia zuen horietan sartzeko aukera izateak. Sistema sobietarraren abantaila nagusia da etxeak ekonomia kapitalistetakoa sistemetan baino askoz modu berdinzaleagoan banatzen zirela. Etxebizitza erosteko edo alokairurako dirua ez zen herritarrentzako kezka; izan ere, 1928tik etxebizitzaren errentak ez ziren igo, eta langileek ez zuten haien soldataren % 3 baino gehiago bideratzen hori ordaintzera (Morton, 1984, 70. or.).

Hala ere, horrek ez du esan nahi pertsona orok aukera guztiz berdina zuenik. Etxebizitza bat eskuratzeko itxaron-zerrenda batean sartzea zen bidea. Itxaron-zerrenda bakarra egon beharrean hainbat itxaron-zerrenda zeuden: ezgaitasunak zituzten pertsonen zerrenda, pentsionistena, gazte espezialistena (enpresa bateko lan espezialista betetzen zutenentzat), gerra- edo lan-heroiarena... Horiez gain, noski, itxaron-zerrenda orokorra zegoen, baina horretan denbora luzeagoz itxaron behar izaten zen. Dena den, Gentile eta Sjöberg ikerlariek Letoniako Daugavpils hiriarren kasurako egindako ikerketak erakusten du aldea ez zela benetan hain handia. 22 zerrenda ikertu ondoren honako ondorioak atera zituzten: lanbidearen arabera pribilegiatuenak politikari, militar eta poliziak ziren; horiek 1970, 1980 eta 1990eko datuak aztertuta 2,8 urte eta 3,5 urte arteko itxaronaldia zuten; bestelako lanen artean batez besteko txarra industriako langileek 1980an zutena zen, 6,55 urte itxaron behar baitzuten une horretan. Hala ere, zuzenean lanbideak baino eragin handiagoa zeukan zerrenda batean ala bestean egoteak. 1980an zerrenda orokorrean zeudenek 7 urte itxaron beharko zuten, eta meritu espezialetako zerrendetakoek (gazte espezialistak, heroiak...) 3,65 urte (Gentile & Sjöberg, 2013).

Itxaronaldi hauek oso luzeak diruditen arren, beste hiri batzuetan egoera askoz okerragoa izan zen. Adibide batzuk ematearren eta soilik batezbestekoak direla jakinda, 1987an Minsken 1976tik itxaron-zerrendan zeudenek lortu zuten etxea, 1972-1974tik Voroxilovgraden, 1969-73tik Duxanben eta 1959-1961etik Irkutskan (Andrusz, 1990, 555. or.). Hau da, Khrustxoven eraikitze-programa erraldoiaren ondotik ere, hainbat hiritan 25 urtetik gora zain egon ohi zen jendea etxe bat esleitu ziezaieten.

Horren aurrean bi irtenbide zeuden: batetik, kooperatiba bateko kide egitea. Horretarako 5.000 errubloko ekarpena egin behar zen, industria-langile batek bi urtean irabazten zuena baino gehiago, eta beraz oso jende gutxirentzat zen hau benetako aukera. Beste aukera bat, jadanik etxebizitza bat zutenek soilik erabil zezaketena, trukea zen. Etxe bat zuten pertsonak, nahiz eta etxe horren jabea estatua edo kooperatiba izan, beste familia batekin etxea trukatu zezaketen. Horren bidez beste hiri batera edo hirian bertan beste etxe batera joatea posible zen (bigarren kasuan etxe handiak kokapen ona zutenekin aldatuz, adibidez). Hori egiteko bulego publikoak, iragarki-aldizkariak zein plazetan egiten ziren trukerako «merkatuak» zeuden (Morton, 1984, 76-77. or.).

6. Ondorioak

1991n Sobietar Batasuna desegin zenean etxebizitzak pribatizatu eta merkatuko salgai bihurtu ziren. Etxe komunitarioei dagokienez, Errusiaren kasuan zentratuz, logelak bertan bizi zirenen jabetza bilakatu ziren, baina apartamentuko biztanleen asanbladak hala erabakitzen bazuen apartamentua bere osotasunean saltzea ere posible zen. Pribatizazio-prozesu hori Errusia oraindik errepublika sozialista zenean onartutako 1990eko abenduaren 24ko legeari eta 1991ko uztailaren 4ko legeari zein jadanik independente zeneko Errusiako Federazioko Presidentearen 1992ko urtarrilaren 12ko dekretuari esker gauzatu zitekeen. Lanean zehar aipatu bezala, hasierako komunalkak antzinako burgesiaren etxebizitzak ziren. Horregatik Errusiako aberats berriek hirien zentroan kokatuta egon ohi ziren antzinako goi-mailako apartamentu horiek erosi nahi izan zituzten. Komunalketan bizi zirenen artean bi joera egon ziren: zenbaitek, apartamentu propioa nahi zutenez, komunalkaren euren zatia saltzea onartu zuten hasieratik; beste askok, aldiz, haien bizilekua uzteari uko egin zioten. Arrazoi ugari egon zitezkeen bertan bizitzen jarraitu nahi izateko: arrazoi sentimentalak (belaunaldiz belaunaldi bertan bizi izan ziren familien kasuan), zentroan bizitzearen abantailak zein elkarbizitza bakarka bizitzea baino nahiago izatea. Hala ere, diru asko zegoen salmenta horien atzean, eta, beraz, higiezin agentziek limurtze- eta intimidazio-teknikak erabili zituzten ahal bezainbeste apartamentu komunitario pribatizatzeke. Moskuren kasuan, 1980an hirian zeuden etxebizitzak % 40 komunalketako logelak ziren; 1998rako % 3,5 besterik ez ziren (Azarova, 2007, 331-332. or.).

Etxe prefabrikatuei dagokienez, *perestroikaren* garaian aldaketa zenbait egin ziren. Batetik, diseinu-institutuek zuzenean bezeroen eskariak bete ahalko zituzten, Gosplanaren baimenaren zain egon beharrik gabe; bestetik, hainbat diseinu-institutuk eraikin prefabrikatuen fatxaden monotonia hausteko esperimenduak egin zituzten. Hala ere, ez dugu sekula jakingo neurri horiek zer eragin izango zuten, herrialdea desgitear zenean eta hornidura-eskasiako garai batean onartu baitziren.

Behin kapitalismoa ezarri zenean, etxe prefabrikatuak egiteari utzi zitzaion, salbuespenak salbuespen. Izan ere, 1990eko hamarkadan estatu postsobietarretan krisi ekonomiko handia egon zen. Hori dela eta, etxe berriak ez ziren hiritar arruntentzat eraiki, etxe bat eros zezaketen aberats berrientzat baizik. Halakoek espazio murrizta zuten prefabrikatutako etxeak baino etxebizitza handiagoak nahi izan zituzten (Malaia, 2020, 8-13. or.).

Zaila da Sobietar Batasunean egondako etxebizitza-politikak baloratzea. Horren harira argigarria izan daiteke Mortonek (1984) esandakoa:

In assessing Soviet housing accomplishments, however, much depends on whether the USSR is viewed as an industrialized or a developing nation. For a developing nation, these housing accomplishments have been admirable; for a developed nation, Soviet housing accommodations are still among the poorest of any industrialized society (70. or).

Gaur egun, etxebizitzaren arazoa pil-pilean dagoen honetan, iraganera jo genezake zenbait irakaspenen bila. Merkatutik at zeuden ondasunak izanda, SESBen ez zen alokairu edo salmentekin espekulaziorik egon. Bestetik, sistema kapitalistetan jabetza pribatuko lurrekin eta bertan egin daitezkeen eraikinekin irabaziak lortu nahi izatea ohikoa da; Sobietar Batasunean, aldiz, estatuak etekin ekonomikoak albo batera utzi eta herritarrentzako eraikinak egin zituen. Azkenik, aipatzekoa da kommunalkek herritarrengan izan zuten eragin soziala, gaur egungo indibidualismoaren ordezkiantzia kolektiboa indartuz.

7. Bibliografia

- Alexeev, Michael; Baker, Lee, eta Westfall Matthew (1991). *Overview of the soviet housing sector*. Office of housing and urban programs AID. https://pdf.usaid.gov/pdf_docs/PNABL918.pdf
- Andrusz, Gregory D. (1985). *Housing and urban development in the USSR*. State University of New York Press.
- Andrusz, Gregory D. (1990). A note on the financing of housing in the Soviet Union. *Soviet Studies*, 42(3), 555-570.
- Azarova, Katerina (2007). *L'appartement communautaire: L'histoire cachée du logement soviétique*. Editions du Sextant.
- Bater, James H. (1980). *The soviet city: ideal and reality*. Edward Arnold.
- Ceccarelli, Paolo (1972). *Construcción de la ciudad soviética*. Gustavo Gili.
- Chambre, Henri (1964). Urbanisation et croissance économique en U.R.S.S. *Économie appliquée*, 17(1), 5-109.
- Clarke, Roger A., & Matko, Dubravko J.I. (1983). *Soviet economic facts, 1917-81*. Macmillan Press.
- Davies, Robert W. (2006). The 'modernisation' of the soviet economy in the inter-war years. In Markku Kangaspuro & Jeremy Smith (argtz.), *Modernisation in Russia since 1900* (71-83. or.). Studia Fennica.
- Duskin, J. Eric (2001). *Stalinist reconstruction and the confirmation of a new elite, 1945-1953*. Palgrave.
- Gentile, Michael, & Sjöberg, Örjan. (2013). Housing allocation under socialism: The Soviet case revisited. *Post-Soviet Affairs*, 29, 173-195.
- Glendinning, Miles (2021). *Mass housing : modern architecture and state power : a global history*. Bloomsbury Visual Arts.
- Gregory, Paul R. (1994). *Before command : an economic history of Russia from emancipation to the first five-year plan*. Princeton University.
- Hanson, Philip (2003). *The rise and fall of the Soviet economy: an economic history of the USSR from 1945*. Longman.
- Hutchings, Raymond (1971). *El desarrollo económico soviético 1917-1970* (Tomo 1). Ediciones Istmo.
- Kalyukin, Alexander, & Kohl, Sebastian (2020). Continuities and discontinuities of Russian urban housing: The Soviet housing experiment in historical long-term perspective. *Urban Studies*, 57(8), 1.768-1.785.
- Malaia, Kateryna (2020). A unit of homemaking: the prefabricated panel and domestic architecture in the late Soviet Union. *Architectural Histories*, 8(1), 1-16.
- Meuser, Philipp, & Zadorin, Dimitrij (2015). *Towards a typology of soviet mass housing : prefabrication in the ussr 1955-1991*. DOM.

- Morton, Henry W. (1984). Housing in the Soviet Union. *Proceedings of the Academy of Political Science*, 35(3), 69-80.
- Movilla, Daniel, & Espejel, Carmen (2013). Hacia la nueva sociedad comunista la casa de transición del narkomfin, epílogo de una investigación. *Proyecto, Progreso, Arquitectura*, 9, 26-49.
- Nove, Alec (1992). *An economic history of the USSR 1917-1991*. Penguin Books.
- Palazuelos, Enrique (1990). *La formación del sistema económico de la Unión Soviética*. Ediciones Akal.
- Ritchie, Hannah; Rodés-Guirao, Lucas; Mathieu, Edouard; Gerber, Marcel; Ortiz-Ospina, Esteban; Hasell, Joe, eta Roser, Max (2023). Population Growth. *OurWorldinData.org*. <https://ourworldindata.org/population-growth>
- Ritchie, Hannah; Samborska, Veronika, eta Roser, Max (2024). Urbanization. *OurWorldinData.org*. <https://ourworldindata.org/urbanization>
- Sosnovy, Timothy (1952). The Soviet Urban Housing Problem. *American Slavic and East European Review*, 11(4), 288-303.
- Schlögel, Karl (2021). *El siglo soviético: arqueología de un mundo perdido*. Galaxia Gutenberg [Jatorrizko edizioa 2017an].